

B

BARREN

Txakurra sendagile





**Elgoibar: Errosario kalea, 35. zbkia. Kalitatezko etxebizitzak.
Azken etxebizitza salgai. Galdetu konpromisorik gabe.**

RAIKETAK S.L
SAGARMIÑA

Hondartza 3-4, Behea. - 20820 DEBA - GIPUZKOA
Tel./Faxa: 943 192 249 - Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarminaeraiketak.com - www.sagarminaeraiketak.com

Lehen



Orain



- Etxegintza eta erreforma lanak
- Txalet eta baserriak
- Teilatuak, fatxadak, e.a...
- Gremioen arteko koodinazioa
- 35 urtetako esperientzia

Lehen



Orain



**Zure etxea eraberritu nahi baduzu,
plano berri eta diseinuaz arduratzen gara**

‘Egunkaria’ libre!

Gezurra hankamotza zela eta egiari errespetua zor zitzaiola erakutsi ziguten umetan. Ez zen eskola txarra, ez. Gezur txikiak izaten ziren gureak, hala ere. Esan eta bat, lotsagorritu egiten ginen, eta hor azaleratzen zen egia. Badira, baina, herrenka bada ere, urrutira iristen diren gezurrak, ibilian ibilian, gainera, loditzen doazenak. 2003ko otsailaren 20an Espainiako Auzitegi Nazionalak *Euskaldunon Egunkaria* ixteko erabili zuena dugu horren adibide garbi bat. Egun hartan, Guardia Zibilak euskarazko egunkari bakarra itxi eta urteetan euskara sustatzen jardundako hainbat lankide eraman zizkigun atxilotuta. Sei urte joan dira ordutik, baina inork ez du gezurra gelditu.

Hotzikara handi batek hartu gintuen otsaileko egun hartan, goizaldean lankide baten deiak gertatutakoaz ohartarazi zigunean. Amesgaiztoa zela ere pentsatu genuen hasieran, ezin zela halakorik gertatu, baina gertatu zen. Euskara eta euskal kultura jo zituzten bete-betean, adierazpen askatasuna ukatu ziguten, eta hainbat lankide torturatu. ETArekin lotu gintuzten, oinarri eta froga barik. Fiskaltzak berak ere kasua behin betiko ixteko eskatu zuen gerora, akusazioek behar besteko oinarri ez zutelakoan. Eta sei urteren ondoren, beste hotzikara batek hartu gaitu. Auzitegi Nazionalak epaiketa egitea erabaki du, AVTren eta Dignidad y Justiciaren herri

akusazioak aintzat hartuta, eta luze ez dela hasiko dira Joan Mari Torrealdai, Txema Auzmendi, Iñaki Uria, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga epaitzen.

Prebisio txarrenak bete dira, eta ikusitakoak ikusita, oso litekeena da sententzia aldekoa ez izatea. Nik ez dakit euskal gizarte zabalaren aldarriak eraginik izango ote duen Auzitegi Nazionalan, baina jakin badakit aldarri hori ez azaltzeak izango duela. Izan ere, asko dira kontu hau guztia isilean gorde nahi dutenak. Horregatik ozen diot *Egunkaria* aurrera, *Egunkaria* libre!



Ainara Argoitia

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Euskara eta euskal kultura jo zituzten bete-betean, adierazpen askatasuna ukatu ziguten, eta hainbat lankide torturatu”

JUAN MARTIN ELEXPURUren hitzaldiko bideoa jarri dugu Izarren Hautsa blogean

“Euskararen jatorria, zalantza artean igerian”



Egin klik eta ikusiko duzu

www.elgoiBARREN.net

JONE ETXABE

ANDEREÑOIA

“Ikastolaren hasierako urteetako gurasoak oso ausartak izan ziren”



Emakumeak izan ziren ikastolen mugimenduaren hazia. Ausardia handia erakutsi zuten andereño haiek ikastolaren urterik zail eta arriskutsuenetan. Elgoibarren 1962an sortu zen ikastola, eta Jone Etxabek gogoan ditu urte haiek. “Urte gogorrak” izan zirela dio, baina “ilusioz beteak”. Itziar Ajuriaren ondoren, bera izan zen ikastolako bigarren andereñoia, eta irailean hartu du erretiroa.

Lan baldintzak zeintzuk ziren jakinda, zerk bultzatu zintuen andereño izatera?

Guraso talde bat etorri zitzaidan, 7 urtez azpiko umeekin ikastola batean lan egiteko prest egongo ote nintzen galdezka. Nik baietz erantzun nien. Horretarako prestatu beharra neukan, eta hala hasi nintzen egunero Donostiara joaten hilabete oso batez. Etxe batean zegoen ikastola, eta berrogeita bi ume zeuden bertan. Han egin nituen praktikak, eta gero, behin lanean hasita, astean behin joaten nintzen hara.

Akorduan daukazu zer material erabiltzen zenuen?

Apenas geneukan materialik. Andereñoaren mahaia eta armairu bat genituen. Lurrean egiten genuen lan, baina egia esan, orain ere lan asko egiten da lurrean eserita. Jostailu batzuk bagenituen: panpinak, baloia, sokak, uztaiak, zapiak...horrekin moldatzen ginen. Jolasari garrantzia handia ematen genion. Gainerako ikastetxeetan jolastokian egiten zen jolasari bai, baina gela barruko jolasari ez

zioten garrantziarik ematen. Euskal Herriko kantuak, olerkiak... ere erakusten genizkien, eta Euskal Herria maitatzen ikasten zuten. Nik uste ikastolaren metodologia berritzailea zela. Hala ere, orduan askok ez zuten ulertzen, eta zarata txarrak ere izan ziren. Ikastolan umeak jolastu baino ez zutela egiten zabaldu zen, eta denak begira izaten genituen. **Ikas-materialik izaten al zen, baina?**

Zegoen apurra erosten genuen. *Xabiartxo* eta *Martin Txilibitu* ziren orduko liburuak. *Xabiartxo* irakurtzeko, baina, lehenengo zotze-kin landu behar izaten zen irakurketa. Lurrean letra handiak egiten genituen zotzekin, eta horrekin ikasten genituen bokalak, hitzak osatzen...Txikiekin *Martin Txilibitu* erabiltzen nuen; *Xabiartxo* handiagoentzako zen. Elgoibarren geuk egindako liburuxka bat ere erabili genuen, hala ere: *Pittinka*.

Gaur egun euskarak badu toki bat. Euskaltegiak daude eta euskarak presentzia du komunikabideetan ere. Horrelakorik ez zen garaian, ikastolak zer garrantzia izan zuen?

Handia. Nire adineko neskek kalean erdaraz egiten zuten, baserri girokoak ez baziren behintzat. Euskara hain zegoenez gutxietsita, guraso euskaldun askok ere erdaraz egiten zieten seme-alabei. Frankismo garaia zen, eta beldur handia zuen jendeak. Bestetik, norbait izatera iristeko, erdara jakitea ezinbestekoa zela uste zen. Euskara traba bat zela sinetsita zuen jende batek. Hizkuntza bat jakitearen aldean bi jakitea aberasgarria zela esaten zigun, baina, guri aitak beti. Hala, kristau ikasbidea ere euskaraz egin genuen Don Joserekin. Gogoan daukat, baina, kristau ikasbidea euskaraz egin genuenetatik hiru baino ez ginela kaletarrak, tartean bat, neu. **Ikastolaren inguruan izan ziren zalantza guztiak ikusita, seme-alabak ikastolara bidali zituzten gurasoen erabakia ere aintzat hartzea izango da ba, ezta?**

Zalantzarik gabe. Guraso talde txiki baten ekimenez sortu zen ikastola. Akorduan daukat Manolo Rementeria, Felix Etxeberria, *Placentxi*...zenbat lan egin zuten guraso haiek!



Jone Etxabe eta Itziar Ajuria Loiolan ikastolako lehenengo umeekin.

Zenbat ate jo zituzten ikastolarako lokala lortu eta dirua biltzeko! Ikastolako lehenengo ume haien gurasoen meritua ikaragarria izan zen. Kontuan izan behar da orduko ikastola klandestinoia zela, eta gu titulu gabe hasi ginela lanean, oso-oso gazte. Nik 18 urte baino ez nituen. Ezin da ahaztu, era berean, ate joka izaten genuela sarri Guardia Zibila, eta inspektorearen mehatxupean ari ginela lanean. Dirua ere jarri behar izaten zuten gurasoek. Noizbait aitortuko zaie egindako apustua. Zeuden zalantza guztien gainetik, euren seme-alabak ikastolara eramatea ez zelako apustu txikia izan. Ume haiek zer etorkizun izango zuten jakin gabe ikastolara bidali zituzten. Oso ausartak izan ziren.

Nola finantzatzen zenuten ikastola?

Gurasoen eta beste jende askoren borondate onari esker. Eskola publikoetan ez zieten umeei kuotarik kobratzen, baina guk bai, ezinbestean. Gauza urria, baina zerbait bai.

Klandestinitatean, diru urriarekin, eta gainera, gizarte segurantzarik gabe.

Gaztea izanik ez duzu gizarte segurantzaren pentsatzen. Guk lokal polita genuen, eta gustuko lana. Hala ere, gogorra zen, bai. Akorduan daukat behin inspektorea etorri zitzaiola Itziarri mehatxuka. *“La próxima vez que le vea a usted aquí vamos a tomar medidas”*. Sarri izaten ziren halakoak. Baina guk gurasoen eta beste askoren babesa genuen. Nik uste dut herrian ez gintuztela klandestino moduan ikusten, nahiz eta begi guztiak guggan jarrita izaten zituzten askok. Hori bai, tarteke, guardia zibilak agertzen zitzaizkigun

atean, ustekabean. Galdera asko egiten zizkiguten, eta gure ikastola itxi egin behar zela esaten ziguten. Baina guk urtetik urtera ume gehiago genituen. Gustura etortzen ziren, eta umea gustura izanez gero, gurasoa ere pozik.

“Guk orduan geneukan jornalarekin gizonezkoek hartuko zuten lan hori? Ziur ezetz”

Eta ikastola hazi ahala lokala ere txiki gelditu zen.

Hasieran, Itziar Ajuria eta neu ginen bakarrik, eta gero etorri ziren Nekane Iturbe eta gainekoak. Poliki-poliki ume gehiago etortzen hasi ziren. Lokala txikiegia zen, eta Elizak laga zizkigun gela batzuk. Plaza Txikian ere egon ginen, Konportan ere bai, eta aurrerago Goitin ere bai, San Frantzisko kalean. Makina bat leku ezagutu genituen.

Urte askoren ostean, klandestinitatean jardundako urteak kotizatuztat eman dizkizute. Hori izan al da zuentzat errekonozimendu handiena?.

Bai. Pentsatu ezazu 1960an sortu zirela lehenengo ikastolak, eta kotizatu gabe egon direla asko eta asko 1973-74ra arte. Atera kon-

tuakl. 1963tik 1967 bitartean lanean ibili gineno diru bat eman ziguten, eta hurrengo pausoa izan da gizarte segurantzarena.

Andereñoak emakume izatea bera ez ote da izan horrenbeste urtean zuen kezkez inor ez arduratzearen arrazoa?

Izan daiteke. Egia da denok emakumeak ginela. Ume txikiekin, gainera, pentsaezina zen maisuak izatea. Neu ere harritu nintzen gero 2 urteko gelara mutil bat etorri zenean. 1973-74an hasi ziren gizonezkoak sartzen. Guk orduan geneukan jornalarekin gizonezkoek hartuko zuten lan hori? Ziurrenik, ez.

Hasierako urte haietan euskarari eustea izan zen ikastolaren funtzio nagusietako bat. Gaur egun?

Euskara bakarrik ez, oro har euskal kultura bultzatzea zen helburua. Gaur egun ere bada, baina garaiak aldatu egin dira. Masifikatu egin da dena. Lehen etortzen zitzaizkigun gurasoak euskal kontzientzia zutenak ziren, euskaltzaleak. Hori aldatu egin da, baina. Hala behar da, noski, baina horrek aldaketa ekarri du. Euskarak beste estatus bat lortu du instituzioetan, eta gurasoak jabetu dira euskara ez dela oztopo ikasketetarako. Erdaldunak ikasi dute euskaraz, baina euskaldunak erdaldundu zaizkigu orain. Izan ere, nahi edo ez, albo hizkuntza sendoa dugu erdara. Orain ume askoren ama hizkuntza erdara da, eta euskara ikastolara mugatzen dute askok. Nik uste euskaraz gehiago egiten dela orain, baina kalitatea galdu dela. Hala ere, umeak nagusitzen doazen heinean, ematen zaio buelta horri.

Gaurko guraso asko ikasle ziren ikastolako lehen urte haietan. Zerk huts egin du?

Nik uste lehen gurekin ibilitakoak orain ere euskaraz egiten dutela. Baina, gauza asko aldatu dira. Oraingo umeek eta lehengoek ez dute antz handirik.

Zertan aldatu dira?

Umeek denetik dute orain, eta gurasoek ez dute lehengoek beste asti euren seme-alabekin egoteko. Errazera jotzen da orain. Askoz errazagoa da umeak eskatzen duena ematea, zergatik eman ezin zaion azaltzen hastea baino. Nabarmena da denetik dutela. Bestetik, baina, orain ia jaio ordurako haurtzaindegira doaz, eta txiki-txikitatik ohitzen ditugu jangelan jatera. Goizeko 8:00etatik arratsaldeko 17:00ak arte eskolan daude. Gurasoak lanean daudelako gertatzen da hori. Hala ere, orain umea etxean izateko aukera izanda ere, eskolara bidaltzen da sarri.

Eskolak bete dezake gurasoen ezina?

Eskolari eskatzen zaizkio orain gurasoek egin beharko lituzketen gauza asko. "Aizu, ez du ondo jaten" esanez etortzen zaizkizu batzuk, edo "aizu, ez daki txiza bere lekuan egiten". Ardura horiek gurasoenak dira, baina eskolaren delegatzen dituzte. Nik ez dut esaten etxean saiatzen ez direnik erakusten, baina gaur egungo gurasoek hain dute denbora gutxi umeekin egoteko... Gauean nekatuta iritsi etxera, eta askotan umea purrustaka. Halakotan nik beti esaten diet: "Zeuk ere zeini egiten zenizkion purrustadak umetan?"

Zure garaikoei sarri irakurri diegu oraingo hezkuntza sistemak ez dituela ikasleen gaitasuna eta erritmoa errespetatzen eta ikasle

guztiak berdinak egiten dituela. Zer diozu?

Egia dela. Eskolak eta gurasoek eurek ere joera handia dute horretarako. "Zure umeari hortz bat irten zaio, eta nireari oraindik ez". Halako kezka izaten dituzte gurasoek. Egia da normalean adin antzekoarekin hasten direla umeak gauzak egiten, baina ume batzuei heldutasun hori beranduago iristen zaie. Guraso askori gertatzen zaie, era berean, umeak arazotxoren bat izatea, eta beraiek ez ikustea. Bestearen pare ikusi nahi izaten du berea, eta oharkabean pasatzen zaio arazotxo hori. Gaurko eskolak teorian umearen gaitasunak errespetatzen ditu, baina, jakina, betebeharrak ere badaude. Helburuetara iritsi behar da, eta zaila da. Kontraesan bat dago.

Lehen ez al zen halakorik?

Lehen lasaiago hartzen genituen gauzak. Marrazkietarako ona zen umeari, adibidez, laguntzen zitzaion horretan trebatzen. Dena den, orduan ere izaten zen helburuetara iritsi behar hori. Izan ere, 9 urte betetzerako, ikastola utzi eta beste ikastetxe batera joan behar izaten zuten umeek, eta hango maila eman beharra zuten, atzera geldituko ez baziren. Ikastolako umeen kasuan, erdaran izan zezaketen gabezia bat, eta horregatik esfortzu bikoitz bat egin behar izaten zuten. Ume askok arazoak izaten dituzte zenbait kontsonanteekin, adibidez. Gure garaian ere izaten genituen, baina orduan gurasoek ahalegin berezi bat egiten zuten etxean. "Esan ezazu hori" jarduten ziguten etxean, ikasteko. Orain, berriz, bere seme-alabak arazoren bat daukala esandakoan, logope-

darengana bidaltzen dute edo andereñoarengana. Baina 2 urteko hamalau umerengana iristea zaila da.

Ikastolako lehen ikasle haiek pertsona heldu ikusten dituzunean zer sentitzen duzu?

Poz handia. Askotan gertatzen da kalean topo egin eta amak umeari esatea: "Amatxo ere andereño honekin ibili zen". Halakotan poza hartzen dut, gurekin gogoratzen direla ikustean. Poza hartzen dut, era berean, guk halako egoera prekarioetan izan genituenak noraino iritsi diren ikustean. Eskerrak ematen diet ikastolan ere ikasten zela erakutsi dutelako. Irratian eta telebistan dabilzan batzuk praktikak egiten nituen gelakoak dira: Ramon Agirre, Maialen Iriarte, Estepan Aldamiz-Etxeberria. Hasier Etxeberria bera ere bai, Elgoibarren.

Inoiz sentitu al duzu "ume honekin ez genuen asmatu"?

Bai, bai. Denetako umeak geneuzkan, eta batzuekin hobeto konektatzen genuen. Ume zailak orduan ere izaten ziren. Gutxiengoak, hori bai. Oro har, orduan gurasoek konfiantza gehiago zuten gudan. Lehen umea kexaka joaten bazen etxera gurasoak berehala esaten zion: "Zeuk ere zer edo zer egingo zenuen" edo "zuk zer egin duzu?" bestela. Orain, kexaka joaten direnean "zeinek egin dizu? galdetuko dio gurasoak, harengana joateko. "Jotzen bazaitu, zeuk ere jo". Halakoa ere entzun ditugu. Nik behin esan nion bati: "eta guk ere hori esango bagenio umeari?"

Ainara Argoitia



Jone Etxabe, iazko ikasturtean, 4 urteko umeen gelan.



Deba ibai ertzeko zuhaitzak moztu dituzte: “Maldala inguruan, Deba ibaiaren ertzean, zuhaitzak moztu dituzte. Ulertzen dut fatxadak garbitu egin behar direla, baina nire ustez, zuhaitzak ez lituzkete moztu behar. Urteak behar izan dituzte hazteko, eta oso garrantzitsuak dira inguruetan bizi diren animalientzat. Gainera, industria-eremu itsusi hori zertxobait edertzen dute”.



Herriko Antzokiko ikuskizunetarako sarrerak Kultur Etxean ere saldu beharko lirateke: “Herriko Antzokiko ikuskizunetarako sarrerak aurrez erostea nahi duenak kutxazainean egin dezake. Hori ondo dago, baina, horrez gain, Kultur Etxean ere saldu beharko lituzkete. Gu antzerki guztietara joaten gara, izugarri gustatzen zaigu, gainera, baina ez gaude kutxazaineko kontuak ikasteko adinean. Gazteek erraz egiten dute hori, baina guretzako oztopo handia da. Batak ez du bestea kentzen, eta gure adinekoentzat zerbitzu egokiagoa da Kultur Etxean bertan saltzea”.



Txalo bat Udalari, Santa Klarako errotondan aparkatzea debekatzeagatik: “Bazen garaia! Oso ondo iruditzen zait Santa Klarako errotondan aparkatzeagatik isunak jartzea, eta herriko beste hainbat gunetan ere, neurri bera hartu beharko luke. Adibidez, zapatueta Madalako errotonda inguruan aparkatzen duten autoei isunak jarri behar zaizkie, eta baita Bernardo Ezenaroko errotondan aparkatzen dutenei ere. Badakit aparkatzeko leku arazoak daudela herrian, baina erdigunetik apur bat urrunduz, lekua erraz aurkitzen da”.



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgolbarkoizarra.com / 943-74 41 12

ESKERTZA

MARIA JESUS ECEIZA BENGOETXEA



2009ko urriaren 25ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



IV. URTEURRENA

JUAN OSORO AGUIRREBEÑA

2005eko urriaren 31n hil zen, 69 urte zituela.

*“Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko”*





BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Gastuak gutxitu behar dira

Elgoibar oso polita geratzen ari da azkenaldiko berrikuntzekin. Madalako ingurunea gustatu zait bereziki, dotore jarri dute benetan. Baina beharrezkoak al dira farola horiek guztiak? Espero dut kontsumo baxuko argiak izango direla, behintzat! Hala ere, gehiegizkoa iruditzen zait. Energia berriztagarriak erabili behar direla esaten digute leku guztietatik, eta, batez ere, energia aurreztu behar dela diote. Nire ustez, eguzki plakak edo led estiloko argiak erabili beharko lirateke. Hasierako gastua handiagoa da, baina epe luzera gehiago aurrezten dela diote adituek. Argindarra garestia da, eta krisi egoera honetan dirua aurreztu behar dugu. Gainera, farolen argitasuna erabat aprobetxatzeko, argia beherantz ematea komeni da, eta Elgoibarren jarri dituzten farola berri horiek gorantz ematen dute gehiago. Estetikoki oso politak dira, eta gustatzen zaizkit, baina egungo egoeran estetikari baino garrantzi handiagoa eman behar zaio ekonomiari.

AA ☞

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARRENez bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILEA Zalao Armaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILERAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Alberto
Agirreazaldegui



Abel
Irizar



Bizirik dirau, Alberto. Ez daukat dudarik. Bakea eta askatasuna... Euskaldunek eta katalanek diktadura bera sufritu dugu, eta hortik dator elkarrenganako lotura. Pasa den astean Miquel Strubell linguista katalana ezagutu nuen IMHko 30+10 kongresuan. Txakolina eta pintxoia eskuan hartuta, berbetan jardun genuen gure hizkuntzen inguruan, krisiaz eta Arenys de Munt-eko independentzia-kontsultaren gainean. Oso erraza da katalanekin konektatzea.

Ostiralean Andoainen izan ginen Maria del Mar Bonet eta Amaia Zubiriaren kantaldian. Bi emakume, katalana (mallorkarra) bata eta euskalduna bestea. Hirurogeita hamarrekota belaunaldiko kantariak biak. Kantaldia ederra izan zen. Amaiarena hobea, nire gusturako. Biek musikari talde oso ona ekarri zuten eta asko gozatu genuen.

Aspaldiko sentsazioak gogora ekarri zizkidan. Euskal Herria eta Paisos Catalans elkarrekin. Bi herrien arteko elkartasuna askotan etorri da kantarien bitartez. Garai batean Lluís Llach, Raimon, Serrat, Pi de la Serra, Ovidi Montllor... gure kantariekin batera entzuteko aukera izaten genuen baina denbora haiek, gogon ditudan arren, urrutikoak iruditzen zaizkit.

“Elkartasun premiarik ez da ikusten egun?”

Orduko grina agortu al da?”

Orduan aretoak gainezka izaten ziren. Ostiralean ez zen bete. Bostehun pertsona inguru izango ginen bertan. Batez besteko adina 50 urtekoa. Zer adierazten du honek, Abel? Elkartasun premiarik ez da ikusten egun? Orduko grina agortu al da?

Amaiak asko eskertu zigun bera maitatzen jarraitzeagatik. Bonetek horrela agurtu gintuen: bakea eta askatasuna zuen herriarentzat. Aspaldiko bi kantari aspaldiko mezua gogora ekarzen. Oraindik bizirik dirau mezuak, Abel?

“Egia da garai batean sentimendu hori askoz biziago zegoela gizartean”

Egia da garai batean sentimendu hori askoz biziago zegoela gizartean. Baina normala da gaseosa-efektua izatea: ia 35 urte dira diktadura amaitu zela, eta begira nola gauden oraindik. Gizarteak mila buelta eman ditu. Gizarte-inplikazioa eta militantzia asko aldatu dira. Baina oraindik ere manifa galantak antolatzekeo gaitasuna du herri honek.

Nostalgikoen Andoaingo kontzertuaz gain, badira elkartasunerako beste mila modu.

Herri batek, bere nortasuna eraikitzekeo ahaleginean, berritu eta moldatu egiten ditu formak. Berri Txarrak taldeak edo Fermin Muguruzak Katalunian kontzertuak ematen dituztenean, seguru nago han ere elkartasun hori sinbolizatzen dela. Edo Internetez kausa komunen alde sinadura elektronikoak ematen ditugun bakoitzean, .cat eta .eus domeinuen alde egin genuen bezala. Horretan sakondu behar dugu, Alberto, herri modura nor izaten berrasmatu beharra daukagu etengabe. Bakea eta askatasuna ipar ditugula, Bonetek eta Zubiriak bezala.



Elgoibarko Udala



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



‘JEANNIE’, EGUNEKO ZENTROKO SENDAGILE BERRIA



Eguneko Zentroko kideek lagun berria izango dute datozen hilabeteotan; *Jeannie* txakurra, hain zuzen ere. Astean birritan etortzen da Elgoibarrera, Eguneko Zentroan dauden lagunekin terapia egitera. Animalterapia izeneko egitasmoa jarri du martxan Elgoibarko Udalak, Bizitzen fundazioarekin elkarlanean eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzekin. Txakurraren laguntzaz zentroko kideen osasuna hobetzea da helburua.

Ainhoa Andonegi

Biribilean eserita daude Eguneko Zentroko kideak lagun berriaren zain. Euren aldean gaztea da, lau hanka ditu eta ez du hitzik egiten, baina primeran konpontzen dira. *Jeannie* eta Mainer Petralanda psikologoa iritsi berri dira, eta animalterapia saioa hastera doa.

Liraina eta dotorea da *Jeannie*, eta Mainerren esanetan, dotore egotea gustatzen zaio. Horretarako, ile-apaindegi saioarekin hasi dira. Gaurkoan, orrazi berria ekarri du psikologoak. Mahai gainera igo da txakurra, eta banan-banan orraztu dute Eguneko Zen-

troko *ile-apaintzaileek*. Batzuk hasieran erreparo apur bat zioten txakurrari, baina oro har, oso ondo hartu dute kide berria. Mainer Petralanda psikologoak azaldukoaren arabera, beste generazio batekoak dira Eguneko Zentroko kideak, eta txakurrak beste esanahi bat dauka eurentzat: “Baserrira zaindu eta soberakinak jaten dituen animalia da txakurra”. Hala ere, pozik dago erakutsi duten garapenarekin, eta egunetik egunera, *Jeannie* gehiago maite dutela adierazi du.

Dotore jarri dute, eta gainera, ondo portatu da *Jeannie*. Orain, beraz, sariak emateko unea iritsi da. Txakurrak zenbaki erraldoi

batzuk hartuko ditu otarre batetik, eta sari kopuru hori eman beharko diote Eguneko Zentroko lagunek. Kaxa batean garbantzu gordinak eta txakurrentzako jatekoa daude. “Zenbakiak gogoratu eta jatekoa bereizten dira jolas honekin”, azaldu du Mainerrek.

Egindako lanaren ordainetan sari mordoa jaso ditu *Jeannie*. Nekatuta dago, eta deskantsatu egin behar du, bigarren saioa hasi aurretik. 45 minutuko beste saio bat geratzen zaio oraindik. Mainerrekin bueltatxo bat ematera irten da, eta haize apur bat hartu ondoren, lanerako prest itzuli da Eguneko Zentrorra.

Horrela pasatuko dituzte egunak datozen hilabeteotan. Bizitzen Fundazioak sustatuta, txakurrekin egingo dute lan Elgoibarko Eguneko Zentroan. Urriaren 5ean hasi ziren lanean, eta hamalau saio egingo dituzte guztira. Bi taldetan banatu dituzte Eguneko Zentroan dauden hamabost kideak. Antsietatea, depresioa eta gaixotasun kognitiboaren maila hartu dituzte kontuan taldeak bereizteko. Terapia berria da, eta gaixoen garapenak neurtuko dituzte, orain arte sekula egin ez dutena. Saioak hasi aurretik gaixo guztiak aztertu dituzte, eta amaitutakoan berriz egongo dira guztiekin, hobekuntzarik izan duten ikus-teko.



Animalterapia, gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko egitasmoa

**Gaixoen hiru alor
garatzen laguntzen du,
batez ere.**


1. Fisikoa: Txakurrekin kontaktua lantzen da. Horretarako pertsonak besoak mugitu behar dituzte, zutitu egin behar dira eta mugimendua lantzen da. Normalean, ez dituzte horrelakoak egiten. Arterietako presioa hobetzen da, eta psikomotritzitatea ere bai. Atentzioa jartzen ere laguntzen du txakurrak, eta hori igarri dute Eguneko Zentroan. Ariketak txakur gabe egiten dituztenean, ez dutela atentzio bera jartzen azaldu du psikologoak.

2. Psikologikoa: Auto-estimua handitzen du. Txakurrak edonor onartzen du lagun moduan. Berdin zaio laztantzen ari den pertsona gaixorik dagoen, zaharra den, itsua edo usain txarra daukan. Txakurra gustura dago, eta horrek pertsonen egoera psikologikoa asko hobetzen du.

3. Soziala: Txakurra komunikatzeko tresna da, eta txakurrari esker harremanak sendotzen dira. Mainer Petralandaren ustez, txakurraren presentzian gehiago hitz egiten dute euren artean.

JEANNIEREN EZAUGARRIAK

- ✓ IZENA: *Jeannie*
- ✓ SEXUA: Emea
- ✓ ADINA: 2 urte
- ✓ ARRAZA: Golden Retriever
- ✓ JATORRIA: Alemaniako familia batean jaio zen.
- ✓ EZAUGARRIAK: Txakur langilea, esker-onekoa eta otzana da. Terapia egiteko aproposa. Txakur dominanteek ez dute terapia egiteko balio.
- ✓ JABEA: Mainer Petralanda psikologoa, Lau Hanka elkarteko kidea.
- ✓ PRESTAKUNTZA: Terapietan lan egiteko txakurra ondo hezi behar da jaiotzen den momentutik. *Jeannie* oso ondo erakutsita zegoen Alemanian, eta ondoren bi hilabete egin zituen Madrilgo zentro batean. Normalean lau edo bost hilabete behar izaten dira txakurra terapietarako prestatzeko.



Elgoibarko baserrietako produktuekin eginiko menua dastatzeko aukera izango da Azken Zapatuko Ferian

Barixakuan eta zapatuan dastatu ahal izango da menua 30 euroren truke

Elgoibarko baserrietako produktuekin eginiko menuaren dastaketa izango da urriko Azken Zapatuko Feriako berrikuntza. Baserriko produktuen salmentaz, ganadu eta baserriko tresneriaren salerosketaz eta kale kantarien emanaldiaz gain, Gabi jatetxeak sasoiko produktuekin menu berezia prestatuko du. Gurutzpe baserriko kalabazarekin eginiko krema, Zabaleta baserriko barazki panatxea, Orube-Armuetako txuleta Txillarreko piper berdekin eta Txabola baserriko ogia eta sagardoa izango dira, besteak beste. Gaur gauean eta bihar, eguerdian zein gauean dastatu ahal izango da menua 30 eurotan. Horrez gain, baserriko produktuekin eginiko pintxoak ere prestatuko dituzte astebururako.

Feria 9:00etan hasiko da, eta eguerdi aldera arte egongo da baserrietako produktuak erosteko aukera. Trikitilariak eta Kale Kantariak arituko dira giroa alaitzen. Kale Kantariak 11:45ean irtenko dira Nafarroa Plazatik. Nahi duenak, abestien liburuxka erosi dezake euro baten truke Bolintxo okindegian, Kultur Etxean edota kalean bertan biharko saioan.



Datorren urteko zergak ez igotzea onartu du Udalak

Tasen alorrean salbuespen batzuk egon arren, 2010erako zergak ez igotzea erabaki du Osoko Bilkurak. Zaborren gaineko zerga %6,40 igoko da, Debabarreneko Mankomunitateak Udalarari igoko dion kopuru bera. Hileriarri dagokionean, kontzeptu batzuk izoztu egin dituzte, baina beste batzuk %10,46 igoko dira. Kirol Patronatuko tasa batzuk ere igo egingo dira, baina langabetuei %50eko deskontua egingo diete. Taberna eta jatetxeek terraza jartzeagatik metro koadroko 5,63 euro ordaintzen zuten orain arte, eta aurrerantzean 15 euro ordaindu beharko dituzte. EAJ-EA eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zen hori guztia, baina sozialistek KPlaren ginetik igotzen diren tasen kontra bozkatu zuen. EB-Aralarrek kontrako botoa eman zuen. Euren ustez, ordenantzak aurrekontuekin batera landu behar dira. Bestalde, Bittori Zabala Ogasun Saileko zinegotziaren arabera, datorren urteko aurrekontuak prestatzeko zailtasunak izango dituzte.

Genero berdintasunari buruzko tailerra hasiko da azaroaren 6an

Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, genero berdintasunari buruzko tailerra antolatu du. Azaroaren 6an hasiko da, eta sei saio izango dira guztira. Hilaren 7an, 13an, 14an, eta abenduaren 11n eta 12an. Barixakueta-ko saioak 17:00etan hasiko dira, eta zapatuetakoak 10:00etan.

Emakumeek eguneroko bizimoduan dituzten zailtasunei buruzko diagnostia egitea da tailerraren helburua, eta, besteak beste, ondorengo alor hauek landuko dituzte: segurtasuna, irisgarritasuna, mugikortasuna, zerbitzuak eta irudikapen sinbolikoa. 17 urtetik gorako emakume guztiek hartu dezakete parte. Interesatuak 944 765 166 telefonora deitu dezakete, edo info@murgibe helbidera idatzi dezakete.

Parte-hartzea sustatzeko ikastaroak datorren astean

Gipuzkoako Foru Aldundiak politika publikoetan herritarren parte-hartzea sustatzeko ikastaro programaren bigarren ekitaldia antolatu du aurten. Debabarreneko prestakuntza programa Elgoibarren egingo dute, datorren astean. Hiru saio izango dira: azaroaren 2an, 3an eta 4an. Ikastaroak 19:00etan hasiko dira, eta udaletxean eskainiko dituzte. Besteak beste, gazteek aisialdian erabiltzen dituzten lokalei buruzko ordenantza landuko dute, eta herritarrek hiri-antolamendurako plan nagusiaren aurrerapenari buruz duten ezagutzak aztertuko dituzte. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Izena **Ana Aizpiri**



Ana Aizpiri elgoibartarrak hartu du Euskal Telebistako eguerdiko albistegien ardura. Ana Aizpirik gizarte gaietarako arduradun kargua hartu zuen uztailean. Aurrerantzean izango duen postua garrantzi handiko kargua da, izan ere, editoreak erabakitzen baitu zein gaik osatuko duten albistegia, eta irizpide informatiboak eta ildo editoriala ezartzen ditu. Editoreak erabakitzen du, baita ere, albisteen ordena. Ana Aizpiriren ibilbidean pauso garrantzitsua izan da.

Zenbakia **100.000**

Kutxak 100.000 euroko diru-laguntza eman dio Udalari, Eguneko Zentroko erabiltzaileentzako furgoneta bat eta San Lazaro egoitzarako motordun 38 ohe erosteko. Eguneko Zentroko erabiltzaileak etxetik zentrorra eta zentrotik etxera eramateko erabiliko dute furgoneta berria. 35.000 euro balio ditu, eta Gabonetarako eskuratzea aurreikusten dute. San Lazaroko oheak, bestalde, urtea amaitu aurretik erabiltzeko moduan egongo direla espero dute. Iaz 30.000 euroko laguntza eman zion Kutxak egoitzari, eta 2006an 50.000 eurokoa. Ongizateko azpiegiturak hobetzeko emandako laguntzagatik eskerrak eman dizkio Alfredo Etxeberria alkateak Kutxari.

Irudia **Baserritar Gazteen Martxa**

Euripean iritsi zen Baserritar Gazteen Martxa Elgoibarrera joan zen urriaren 23an. Goizean abiatu zen martxa Azpeititik, eta 19:00etan sartu ziren gure herrian, traktore baten atzetik. Baserritar gazteek, sardeak eta aitzurrak eskuetan hartuta, herri guneari itzulua egin zioten, eta, ondoren, euren esperientziak elkartrukatzeko mahaingurua egin zuten Kultur Etxean. Merkatu Plazako goiko lokalean pasatu zuten gaua, eta zapatu goizean Eibarrerantz abiatu ziren. Domekan, urriaren 25ean, amaitu zen martxa Durangon.



Mausitxak irabazi du Gernikako gazta lehiaketa

Elgoibarko Mausitxa baserriak beste sari bat eskuratu du aste honetan, izan ere, Gernikako Azken Asteleheneko Azokako gazta lehiaketa irabazi du-eta. Gazta erdiagatik 5.000 euro ordaindu zituen Bilboko Porrue jatetxeak.

Jokoarekin arazoak dituztenentzako laguntza

Elgoibarko Egun Bat taldeak jokoarekin arazoak dituztenei laguntza eskaintzen die. Horretarako telefono zenbaki bat jarri dute, eta eguneko 24 orduetan deitu daiteke: 657 710 756.

Gure denda, gure poza kanpainako saritua

Pilar Sansuan izan da *Gure denda, gure poza* kanpainaren barnean irailako saritua, eta tolesteko bizikleta bat eskuratu du. Udalak, Txankakuak eta Barren Azoka elkarteek bultzatutako ekimenak, eta, besteak beste, plastikozko poltsak gutxiago erabiltzeko eta herriko merkataritza sustatzeko helburua du. Datozen hila-beteetan 100 euroko erosketa txkeak zozketatuko dituzte.

San Migel jaietako errifaren zozketa egin dute

Saioa Andonegi mutrikuarraz izan da San Migel jaietan zozketa zuten zxeorraren irabazlea 3995 zenbakiarekin. Zorionak!



Domusantu Eguna izango da datorren domekan, azaroaren 1ean.

Ba al daukazu Domusantu Egunean kanposantura joateko ohiturarik?



Javi Taboada
34 urte, soldatzailea

Ez. Ez zait kanposantura joatea gustatzen. Jendeak uste du egun horretan joan behar dela hilerrira, eta asko joaten dira, baina nire ustez, urteko egun guztietan gogoratu behar da hildakoekin, eta horretarako ez da kanposantura joan behar loreak eramatera.



Pepi Calleja
59 urte, etxeoandrea

Egia esanda, ez zait gustatzen hilerrira joatea, baina ama daukat han, eta bera hil zenetik azaroaren 1ean kanposantura joateko ohitura hartu dut. Loreak eramán eta bisita egiten diot. Berarekin gogoratzen garela erakusteko modu bat dela iruditzen zait.



Ainhoa Etxeberria
27 urte, dendaria

Ez, momentuz ez zait gertuko inor hil eta ez naiz joaten. Nire ustez, baina, urte osoan gogoratu behar dira hildakoak. Denerako egunak daude egutegian eta hildakoentzako ere egun bat jartzea ez dago gaizki, baina urtean zehar egiten ez dena, egun batean egiteak ez du zentzurik.



Jose Antonio Zuazubizkar
80 urte, jubilatua

Ez daukat seniderik hilerrian, eta ez gara joaten. Ondo iruditzen zait jendea joatea, baina ni ez nintzateke joango. Nik badauzkat beste modu batzuk hildakoak gogoratzeke, baina sentimenduak diferentek dira, eta denak errespetatu behar dira.

BARRENeko erretratuak salgai!

BARREN astekarian edo www.elgoiBARREN.net atari digitalean argitaratzen diren erretratuak erosteko aukera daukazu (erretratu bakoitza 2 euro).

Nafarroa enparantza, 2 - Elgoibar - Tel.: 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.com

2010eko zergak ez igotzea erabaki du Mendaroko Udal Batzarrak

Datorren urterako ordenantza fiskalak onartu zituen joan zen eguaztenean Mendaroko Udal Batzarrak, eta zergak ez igotzea erabaki zuten. Horrenbestez, zabor bilketari dagokion zerga bere horretan lagako dute bizilagunentzat eta herriko dendari zein ostalarientzat. Aldiz, industriei eta ospitalari Debarrenako Mankomunitateak aurreikusitako igoera aplikatuko diete zerga horretan.

Era berean, hilerrietako zerbitzuak kudeatzen dituen enpresak Udalarari ko-

bratzen dionera egokitzeko, datorren urtetik aurrera hilobiratzeak eta gorpuzkinak hilobitik ateratzeak berdin kobratuko dira Azpilgoetako eta Garagartzako hilerrietan. Era horretan, gaur egungo ezberdintasunak gaindituko dira, gainera. Izan ere, Azpilgoetan, senideek eurek ordaindu behar izaten zituzten orain arte desehorzketa edo gorpuzkinak hilobitik ateratzeko gastuak, eta Garagartzako kasuan, berriz, Udalak ordaintzen zituen gastu horiek.

Hamasei zikloturista elkartu ziren Mendaron denboraldi amaierako irteeran

Denboraldi amaierako zikloturisten irteera egin zuten joan zen zapatuan MTE Mendaroko Txirindulari Taldekoek. 10:00etan irten ziren Goñati frontoi paretik, eta Soraluze-Saturran-Elgoibar-Mendaro ibilbidea osatu zuten hamasei lagunek. Ondoren, bi izan ezik, denak, Landa erretegian elkartu ziren bazkaltzeko.

Ez zen, hala ere, gorabehera gabeko eguna izan. Soraluzetik bueltan, Maltza-

ga eta Elgoibar artean, ezbeharra izan zuten. Parte-hartzaileetako batek lepaustaia hautsi zuen lurrera jausita, eta harekin batera, tropeleko beste bi lagun ere erori ziren, baina zauri eta mailatu arinagoak izan zituzten haiek. Edozelan ere, sustoan gelditu zen guztia, zaurituak eurak ere Landa jatetxean batu ziren gero-eta. Urtarrilean ekingo diote berriz MTEkoek zikloturistentzako irteerak antolatzeari.



m o t z

'Euskaldunon Egunkaria' auziaren gaineko bilera eguaztenean udaletxean

Aurki hasiko da Espainiako Auzitegi Nazionalean *Egunkariaren* kontrako epaiketa. Sumario nagusian auzipetutako bost lagun epaituko dituzte, AVT eta Dignidad y Justiciaren akusazioak aintzat hartuta: Martxelo Otamendi, Txema Auzmendi, Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria eta Xabier Oleaga. Auzipetuei babesa adierazi eta epaiketarako dirua biltzeko, hainbat ekitaldi antolatuko dira. Egunkariaren Aldeko Taldeak deituta, eguaztenean bilera informatiboa egingo da 19:00etan udaletxeko batzar artoan. Era berean, 10 euroko bonoak jarriko dira salgai, momentuz, Leku-Ona eta Ormola tabernetan.

Mendaroko lau odol emaila saritu dituzte

Debarrena eta Debagoieneko odol emailen batzarra egin zuten joan zen domekan Elgetan, eta bertan lau mendaroar saritu zituzten: Maria Eugenia Barquero, Javier Leira, Pejo Agirregabiria eta Cecilio Manteca. Lehenengo hirurek zilarrezko intsignia eta diploma bana jaso zuten 25 aldiz odola ematearren, eta Cecilio Mantecak, berriz, urrezko intsignia eta diploma, 50 aldiz ematearren.

Bertso afaria, gaur zortzi Gaztetxean, Andoni Egaña eta Iker Zubeldiarekin

Hurrengo barixakurako, hilaren 6rako, bertso afaria antolatu dute Mendaroko Gaztetxean, Andoni Egaña eta Iker Zubeldia bertsolariekin. Aurrez, trikibertso poteoa egingo da, Ormola tabernan hasita. Afaritarako izena emateko epea eguaztenean amaitu zen.

mauro gonzalez

Hiru afizio ditu Mauro Gonzalezek: ehiza, txakurrak eta dantza. Barixakuro joaten da dantzara, eta asteburuan libre duen denbora apurra txakurrarekin mendira joateko aprobetxatzen du. Gipuzkoako Ehiza Txapelketan bigarren gelditu zen urri hasieran, eta azaroaren 15ean Euskadiko Txapelketa jokatu du Zanbranan. Txakurrarengan konfiantza osoa du, eta haren lana ez zapuzten saiatuko dela dio.

Ainara Argoitia



“Kilimon Zahar izena goi-goian lagatzeak ilusioa egingo lidake, eta saiatuko naiz”

**Noiz hasi zinen ehizan, eta zeinek bultzatu-
ta?**

Umetan hasi nintzen, aitarekin. Ikaragarri gustatzen zitzaidan ehizara joatea, eta hona iritsi nintzenean, orain 36 bat urte, arnabak edukitzeko baimena atera eta osaba Jesusekin hasi nintzen ehizan. Sasoi hartan, nire aitagarreba Kilimon Zaharreko bazkidea zen, eta erretiroa hartu zuenean, neu sartu nintzen bere lekuan, koinatuak ez zeukalako horrenbesteko interesik.

Txakurrarekin joaten zara beti ehizara?

Bai. Niri paseko ehiza ez zait gustatzen. Usotara, adibidez, ez naiz joaten. Lehen garai batean, bai. Alkorta gainera joaten

nintzen, baina han beti zegoen zerbait. Tiro egin, eta “hori ez zen zurea, hori nirea zen” eta halakoak izaten ziren, eta aspertu nintzen. Ez du merezi istiluetan ibiltzeak. Txakurrarekin joaten naiz mendian, eta uso talde bat pasatzen bada, tiro egiten diet; baina apropos usotara joan, ez. Txakurra lanean ikustea gustatzen zait, mendian trostan ikustea. Oilo-larrua jartzen dit.

Hemen inguruan jarduten duzu edo kanpoan?

Hemen oso gutxi ibiltzen naiz. Ibiltzen naizena txakurra eta ni neu entrenatzeko izaten da. Oilagorra sartzen bada akaso joaten naiz mendira, baina gutxi. Orain da oi-

lagorrerako sasoi: hemendik Gabonak bitartean pasako da Espainiarako bidean. Baina gutxi ibiltzen naiz orain. Ehizaz gain, dantzarako afizio handia daukat, eta barixakuro Donostiara edo Bilbora joaten naiz salsa dantzatzerara. Estresaren kontrako terapia ona da, eta lagun asko egiteko balio izan dit. Ni neu zabaltzeko ere bai. Barixakuetan dantzatik etxeratu orduko, baina, goizaldea izaten da, eta jakina, zapatuan ez naiz goiz jaikiko. Gainera, mendiak oso zikin daude, eta oso oilagor gutxi pasatzen da. Segoviara joaten naiz ni, urtean laubost aldiz, aitarengana, eta eperretan ibiltzen naiz han.

Ehizatza bakarrik joaten zara?

Bai, beti. Gure aitak 89 urte ditu, eta orain dela lau bat urtera arte nirekin irteten zen ehizara Segovian. Azkenekoz irten zenean, baina, jausi egin zen, eta orain ez diot lagatzen, mendian min hartzeko arriskua dagoelako.

Txapelketetan ibiltzen zara, hala ere. Eta aurtengo denboraldia ezin esan txarra izan denik, ezta?

Ez. Egia esan, ikaragarria ari da izaten. Mendaroko txapelketan hasi nintzen. Hemen urtero egiten dugu ehiza txapelketa. Aurten izena ematea erabaki nuen, parte hartzaile guztiak herrikoak eta lagunak garelako, eta giro ona egoten delako. Hala ere, eguna iritsi zenean leher eginda nengoan, bezperan oso berandu iritsi nintzelako dantza egitetik, eta pare bat ordu lo eginda nengoelako. Ez neukan ezer egiteko asmorik, baina ondo ibili nintzen, eta neuk irabazi nuen. Zahatu mendian izaten da txapelketa hori, Agerre-txiki eta Olla artean. Bost faisai harrapatu nituen. Primerako hamaiketako egin genuen gero, Oliako txakolinarekin, eta gustura etxera.

Eta handik bailarako txapelketara, ezta?

Bai. Eibar, Elgoibar eta Mendaro guztiko txapelketa da. Jende asko batu ginen han ere, eta eibartar batek irabazi zidan, bi eperengatik: Iñigo Gisasolak. Irabazteko aukera ere izan nuen, bera baino aurretik sartu nintzelako kontrolean, baina bi hutsegite larri egin nituen, eta jai. Barkatu ezin diren hutsak izan ziren, baina beti ezin da.

Hala ere, Gipuzkoako txapelketarako sailkatzeko balio izan zizun bigarren postu hark.

Bai. Txapelketa horretan, hiru lehenengo gelditzen direnak sailkatzen dira Gipuzkoako txapelketarako. 44 lagun joan ginen Gipuzkoakora, nor bere txakurrarekin. 44 ehiztari, eta beste horrenbeste epaile. Pancho Villa ematen genuen, denok batera mendian goira. Irteera beldurgarria izaten da. Gipuzkoako Federazioko bat joaten da lehenengo, eta ehiza eremua zehaztu ostean, airera tiro egiten du, eta han hasten gara denok arrapaldan. Ehiztari batzuk txakurra baino gehiago izaten dira korrika. Niri hori ez zait gustatzen, niri txakurrari jarraitzea gustatzen zait.

Eskopetak hiru tiro ditu, baina txakurra

pelketan bi kartutxo erabili ahal izaten dira gehienez, eta ezin da txoria lurrean babesgabe dagoenean hil. Txakurrak edo ehiztariak berak altzarazi egin behar izaten du, eta hegan ari denean egin behar zaio tiro. Gipuzkoako txapelketara Imanol Bastida herrikidearekin joan nintzen. Ehizarako giro aproposa egin zuen, eta bigarren gelditu nintzen. Urnietar batek irabazi zidan, eper bategatik.

“Lanaren %80 txakurrak egiten du, baina, jakina, ehiztariak ezin du gero haren lana zapuztu”

Euskadiko Txapelketa daukazu orain, azaroaren 15ean. Zer helbururekin joango zara?

Nire onena ematera joango naiz. Bederatzi ehiztari joango gara, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako hiru onenak, eta zaila dago. Hara doazenak maila handikoak dira, tartean iazko txapelduna ere badago, eta ni haien ondoan... Saiatuko naiz, hala ere. Zorte handia izan dut orain arte, eta ea ba egun horretan ere izaten dudan. Kilimon Zahar izena goi-goian lagatzeak ilusio handia egingo lidake, eta saiatuko naiz. Imanol Bastida etorriko da ziurrenik nirekin Zanbranara, epaile moduan. Oso ondo ibiltzen da mendian, primerako ehiztaria da, eta sekulako konfiantza ematen dit. Jakina, Imanol ez da gero nirekin ibiliko; beste norbait zaintzen jarriko dute. Ehiztariak harrapatzen duena apuntatu beharko du, eta arauak betetzen dituela zaindu. **Zer da garrantzitsuagoa ehiztari ona izatea edo txakur ona edukitzea?**

Txakurra ona izatea. Lanaren %80 txakurrak egiten du. Berak topatu behar du txoria, baina behin txoria topatuta, ehiztariak ezin du huts egin, ezin du ha-

ren lana zapuztu. Nik zorte handia daukat txakurrarekin. Oso ondo dabil. Badira batzuk, beroagatik-edo, goizeko hamaiketarako behera etortzen direnak, eta ehiztariaren atzetik ibiltzen direnak.

Eta zelan entrenatzen duzu txakurra?

Billbon lan egiten dut, eta oso berandu etxeratzen naiz, baina tarte bat daukaten aldiro mendira eramaten dut. Ehizarako debekualdia bada, eskopeta gabe joaten naiz, eta ehizarako garaia denean, eramaten dut, baina sarri adornutzat. Domekero Alkortatik Oterrerako arteko paseoa egiten dugu. Oterren garo sail ederra dago txakurrarekin ibiltzeko. Oso garrantzitsua da txoria hildakoan txakurrak osorik ekartzea, eta hori ere irakatsi egin behar zaio. Eperra ahoan hartzea derrigortzen diot txikitatik, ikasi dezan.


Harritu egin naiz txakurrari ingelesez egiten entzun dizudanean. Zergatik ingelesez?

Berbak motzagoak direlako, eta hobeto ikasten dituelako. Nik txakurrak hiru hilabeterekin hartzen ditut, eta asko jolasten dut eurekin. Ume txikien modukoak dira. Txikiak direnean, egunean ordubete egiten dut eurekin, orduan ikasten dutena izaten direlako gero. Ehizan ondo ikasteko hiru bat urte behar izaten ditu, hala ere, eta 10 urterekin zaharra da. Zenbat negar gero txakurra kentzeko garaia iristen denean.

Bistan da txakurrak miresten dituzula.

Ikaragarri. Setter ingeles bat daukat orain, *Vilo de Playabari* dauka izena, eta *Jen de Playabari* Europako txapeldunaren semea da. Hasieran, ikustera joan nintzenean, ez zitzaidan batere gustatu. Kolorea ez nuen gustuko, baina oso txakur ona da, ez duelako uzten bazter bat begiratu gabe. Aurreko txakurra ere oso estimatua izan nuen, eta hain zen gainera dotorea... haren moduko bat nahi nuen nik. Orain arte izan ditudan txakur gehienak setterrak izan dira. Behin pointer bat izan nuen, *Lur*, oso ona. Min hartu eta kendu egin behar izan nuen. Honen aurrekoa Colindrestik ekarri nuen. Primerako

txakurra zen, eta ederra bera bestekoa, baina 3 urterekin epilepsia arazoekin hasi zen, eta kendu egin behar izan nuen. Zenbat negar!



‘Emakumeak’ zine zikloa antolatu dute Ongarrik eta Berdintasun Sailak

Azaroaren 5ean hasiko da, eta lau film emango dituzte

Ongarri zine-klubak *Emakumeak* izeneko zikloa antolatu du, Udaleko Berdintasun Sailaren laguntzaz. Emakumeek zuzendutako lau film eskainiko dituzte azaroko eguenetan, hilaren 5ean hasita. Gainera, azaroaren 12an eta 26an hizlari bana etorriko da, eta zine-forum saioa egingo dute. Emanaldiak Herriko Antzokian izango dira, 21:30ean.

Azaroak 5

Cosas insignificantes
(Andrea Martinez,
Mexiko)

Azaroak 12

Frozen River
(Courtney Hunt,
Estatu Batuak)

Azaroak 19

El niño pez
(Lucia Puenzo,
Argentina)

Azaroak 26

La teta asustada
(Claudia Llosa,
Peru)



Jose Manuel Esnalek irabazi du Eibarko San Andres jaietako kartel lehiaketa

Eibarko San Andres jaietako kartel lehiaketa irabazi du Jose Manuel Esnalek, eta 600 euro eskuratu ditu. 2009an hainbat sari eskuratu ditu elgoibartarrak, eta hau aurtengo zazpigarrena izan da. Esnal bera ere harrিতuta dago, eta bere hitzetan, “zaila izango da horrelako urtea errepikatzea”.

Olio-pintura ikastaroa hasiko da azaroaren 3an

Egur arte tailerrak Udalen laguntzaz antolatuta, olio-pintura ikastaroa izango da azaroaren 3tik 27ra arte. 30 orduko ikastaroa izango da, eta astelehenetik eguenera eskainiko dute. Bestalde, la-bean eginiko esmalte ikastaroa martxan da. Interesatuak Egur arte eskolak Aita Agirre Plazan duen lokalean eman dezakete izena, 18:00etatik 20:00etara.

Mendiko erretratuen argazki lehiaketa

Morkaiko Mendizale elkarteak mendiko erretratuen argazki lehiaketa antolatu du. Mendiarekin zerikusia duten erretratuak aurkeztu behar dira lehiaketara. Partaide bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez, eta parte hartzeko azken eguna azaroaren 26a izango da. Argazki onenak 150 euroko saria jasoko du, eta ikusleen argazkirik gustukoena 125 euro jasoko ditu. Lehiaketako erretratuak Kultur Etxeko sotoan jarriko dituzte ikusgai, abenduaren 16tik 23ra. www.morkaiko.net atarian eskuratu daiteke informazio gehiago.

“EMAKUMEAK” ZINE ZIKLOA
azaroko ostegunak
9:30ean - HERRIKO ANTZOKIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
 BERDINTASUN SALA
 ONGARRI ZINEKLUBA

Euskaltasunaren norabidea aztertuko du Jon Sarasuak eguaztenean

Gotzon Garate zikloko hirugarren hitzaldia izango da

Gotzon Garate idazle eta euskaltzalearen omenezko hitzaldi-zikloaren barruan, *Euskaltasunaren norabideaz, oldozpen batzuk* izenburuko hitzaldia eskainiko du Jon Sarasuak eguaztenean. Bertan, euskaltasunean aurrera egiteko elementuak aletuko ditu, 19:00etatik aurrera, Kultur Etxean. Hala ere, joan ezin duenak www.elgoibarren.net atarian izango du zuzenean jarraitzeko aukera.

Bestalde, joan zen eguaztenean, euskararen jatorriaren inguruko teoria eta hipotesiak aztertu zituen Juan Martin Elexpuru idazle bergararrak, *Euskararen jatorria, zalantza artean igeria* izenburuko hitzaldian. Noiz hasi zen gizakia hizketan? badago jakiterik euskara non eta noiz sortu zen? eta antzeko galdereri erantzun zien. Jende ugari batu zen hitzaldira, eta aretoa txiki gelditu zen.



Juan Martin Elexpuru.



Jon Sarasua.

Tertuliak programan parte hartu nahi duenak Elgoibarko Izarran eman dezake izena

Datorren astean hasiko da Tertuliak programa. Elgoibarko Izarran antolatzen du programa hori, Udalaren babesarekin eta euskaltegien laguntzarekin, eta aurten hamargarren urtea du. Momentuz hamabost lagunek parte hartuko dute, eta bizpahiru lagunez osatutako bost bat talde egingo dira. Edozelan ere, tertulian jardun nahi dutenek badute oraindik izena emateko aukera, Elgoibarko Izarran. Euskara landu nahi duenarentzat aukera paregabea da. Tertuliakideak astean ordubetez elkartuko dira, elkarrengandik ikasteko. Euskaldun zaharrek eta euskara mintzapraktikak behar dituztenek, denek, dute lekua. Argibide gehiagorako 943 741 626 telefono zenbakira deitu daiteke



Zabalik dago Gabon Zahar ferian postua jartzeko epea

Elgoibarko Kultura Sailak jakinarazi du abenduaren 16an amaituko dela Gabon Zahar ferian postua jarri nahi dutenentzako izena emateko epea. Izena emateko nahiz argibide gehiago jasotzeko, 943 742 158 telefono zenbakira deitu daiteke. Fax zenbakia: 943 744 161

‘Elgoibarko herria’ kartel lehiaketa

2010eko Elgoibarko Herria Instrumentu Taldeen lehiaketarako kartela aukeratzeko txapelketa antolatuko du Inazio Bereziartua Musika Eskolak. Edonork hartu ahal izango du parte lehiaketan, eta norberak aukeratu ahal izango du zein teknika erabili. Kartelean, baina, honako hau agertu behar da derrigor: *Instrumentu Taldeen IX. Lehiaketa “Elgoibarko Herria” IX Concurso Conjunto Instrumental. Apirilak 24. 2010. 24 Abril.* Lanak aurkezteko epea azaroaren 20an amaituko da, eta sari bakarra izango da: 300 eurokoa.

Artisautza eta gastronomia eskutik, Zaporeen Azokan

Zaporeen Azoka atzo zabaldu zuten Leku-Ederren eta domekara arte egongo da irekita. Artisautza azoka da oinarrian, baina Euskal Herriko gozoak, Nafarroako eta Errioxako kontserbak, Gaztelako hestekiak eta Kantauriko kontserbak dastatu eta erosteko aukera ere izango da bertan. Goizez, 11:00etatik 14:30era egongo da zabalik, eta arratsaldez, 17:00etatik 22:00etara.

Sexologiari buruzko tailerra hilaren 4an

Zeri deritzogu sexualitatea? izenburuko tailerra egingo da azaroaren 4an, Haizeak antolatuta. Haizea emakume taldeak Artetxenean daukan lokalean egingo dute tailerra. 16:45ean hasiko da, eta Eskarne Larrinaga izango da hizlaria.

HARITZ ARRIBILLAGA

Pilotaria

Lagunak pilota eskolako kidea da Haritz Arribillaga elgoibartarra. 18 urte ditu, eta senior mailan jokatzen ari da aurten. Getariako txapelketa irabazi zuen udan eta DV Pilota Torneoan egin du debuta. Aurrelari honek pilotarako duen zaletasunaz berba egin du BARRREnekin.

**“Frontoi berria
behar du
Elgoibarrek”**



DV Pilota Torneo entzutetsuan egin duzu debuta, eta, gainera, kritika oso onak jaso dituzu. Nolako esperientzia izan da?

Oso ona. Lehenengo partidari kanporatu gintuzten, baina nahiko ondo jokatu nuen. Gustura geratu nintzen.

Pilotarako dohain onak dituzula diote adituek. Zein da zure ezau-garririk onena pilotan jokatzeke?

Azkenaldian indarra hartu dut, eta abiadura aldetik ere ondo nabiltzen. Kolpea ere hobetu egin dut, baina airez ez naiz oso ondo moldatzen. Aireko jokoa hobetu behar dut.

Asko entrenatzen zarete?

Orain arte ez gehiegi, baina aurten gehiago entrenatzen hasi gara. Asteazken bi saio fisiko egiten ditugu, eta frontoian beste bat. Horrez aparte, asteburuetan partidak jokatzen ditugu. Asteazken hiru entrenamendu eta partida izaten ditut. Aste osoa ematen dut ia pilotan jokatzen!

Nola moldatzen zara ikasketak eta pilota uztartzeko?

Aurten hasi naiz Unibertsitatean Ingeniaritza ikasten, eta goizez izaten ditut klaseak. Entrenamenduak arratsaldean egiten ditugu. Ikusi egin beharko da azterketetan nola moldatzen naizen! Pilota eta ikasketen artean aukeratu beharko banu, pilota aukeratzeara

nahiko nuke, baina oso zaila da profesioarekin sartzea. Euskal Herrian bakarrik jokatzen da pilota, eta oso gutxi iristen dira gorenareko mailara. Gustatuko litzaidake, baina ez da erraza.

Noiz eta nola hasi zinen pilotan jokatzen?

6 urterekin hasi nintzen. Ni baino lehenago lagun batzuk hasi ziren, eta haiekin hasi nintzen Lagunak Pilota Eskolan. Umetan jende asko hasten da, baina gero asko futbolean jokatzerara joaten dira. Nik futbola laga eta pilota aukeratu nuen.

**Pilotan jokatzen hastear dagoen gaztetxo bati zein aholku eman-
go zenioke?**

Konstantea izateko, eta ondo entrenatzeko. Gustatzen bazaio, hobetzea lortuko du, segurua.

Zein da gehien gustatzen zaizun pilotaria?

Irujo, dudarik gabe. Espektakulo hutsa da!

Elgoibarren badago pilotan jokatzeke aukerarik?

Bai, afizioa badago, eta Pilota Eskolak ere aukera ematen du, baina frontoi berria behar du Elgoibarrek. Herri txikiagoetan hemen baino frontoi hobeak dauzkate. 15 urtera arte Ikastolako frontoian jokatu daiteke, baina hortik aurrera txiki geratzen da. Sanbartolomeetako partidetarako ere ez da egokia.

Zorraren erdia kobratzea onartu dute CD Elgoibarko bazkideek

Realak bost urtean 256.000 euro ordainduko lituzke

Realak CD Elgoibarrekin zeukan 512.000 euroko zorraren %50 kobratzea adostu dute Elgoibarko bazkideek. Hortaz, hitzarmena onartzen denean, Mintxetako taldeak 256.000 euro jasoko ditu bost urteko epean. Lehenengo ordainketa hitzarmena onartzen denetik bi urtera egingo lukete txuri-urdi-ek, eta gainontzeko dirua ondorengo hiru urteetan emango lukete.

Iratxe Gomez abokatua izan da gai honetan CD Elgoibarren aholkularia, eta bere ustez, Realak eginiko eskaintzen artean hauxe zen onena.



Sanmigeldarrak lehen postuan daude hiru txirlo txapelketako bigarren jardunaldiaren ondoren

Orain dela bi aste hasi zen Euskadiko Hiru Txirilo txapelketa, eta lehenengo bi jaurtialdiak jokatu ondoren, sanmigeldarrak lehenengo postuan daude taldekako sailkapenean, 30 punturekin. Lehenengo jaurtialdia Añastia-San Migelen bertan izan zen, eta emaitza oso onak lortu zituzten elgoibartarrek. Joshua Lizundia izan zen irabazlea zazpi txirlorekin, eta lehenengo sei sailkatuen artean lau sanmigeldar sartu ziren. Joan zen astean Barinagan jokatu zuten, eta Eibarko Asola Berrikoak izan ziren nagusi. Hala ere, zazpi puntuko alde daukate oraindik sanmigeldarrek. Bihar, Soraluze jokatu dute, eta azken saioa Mallabian izango da azaroaren 7an.

Azaroaren 14an jokatu da Karakateko Igoera



Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, azaroaren 14an izango da Karakateko Igoera, eta aurtengoan berrikuntzekin dator. Sari berri bat emango dute antolatzailleek, eta ez da izango gailurrera azkarren iristen denarentzat. Azken metroak aurpegi onenarekin egiten dituenak gazta bat jasoko du sari modura. Horrez gain, ohiko sariak emango dituzte. Irabazleak eta lehen emakumeak txapela eta gazta bana jasoko dituzte, eta lehenengo neska eta mutil elgoibartarrek gazta bana eskuratuko dute. Korrikalariak 11:00etan irtengo dira Plaza Handitik. Izen-ematea doan izango da, eta egunean bertan egingo da. Lasterketaren ondoren bazkaria egingo dute Konporta elkarteak.

EMAITZAK

FUTBOLA

Zamudio 2 – Haundi 0 (3. maila)
Mutriku 1 – Elgoibar 2 (Erreg.)
Elgoibar 0 – Beasain 4 (Jub.)
Aretxabaleta 1 – Elgoibar 4 (Kad. A.)
Elgoibar 2 – Ilintxa 2 (Kad. B.)
Elgoibar 1 – Ilintxa 2 (Inf.)
Bergara 3 – Elgoibar 3 (Txiki)
Bergara 0 – Elgoibar 2 (Neskak)
Aretxabaleta 3 – Elgoibar 4 (Alebinak)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako txapelketa

Lagunak 22 – Behar Zana 15 (1. mailako nag.)
Lagunak 22 – Aretxabaleta 7 (2. mailako nag.)
Antiguoko 22 – Lagunak 4 (2. mailako jub.)
Lagunak 22 – Eskoriatza 10 (2. mailako kad.)
Pala
Lagunak 25 – Alde Zaharra 15

ARETO FUTBOLA

Concepto Createch 8 - Santurtzi 2

SASKIBALOAIA

Anboto 3 - Comercial Zabala 52

ESKUBALOAIA

IES Construcción 21 – Tecnifuelle 12 (Sen. neska.)
Grupo Eibar Elg. 22 – Usurbil 21 (Jub. neska.)
IMH 14 – Usurbil 26 (Kad. neska.)
Katilu 26 – Beristain Elg. 23 (Jub. mut.)
Ereintza 14 – Lauko 28 (Kad. neska.)
La Bacaladera 28 – Pneumax Elg. 26 (Kad. mut.)
Ikus 12 – Aterpe 10 (Inf. neska.)
Txarriduna 22 – Pulpo 11 (Inf. mut.)
Pulpo 40 – Bankoa 31 (Inf. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 31

11:00 Elgoibar – Eibar (Inf. Txiki)
12:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Kad. A.)
16:30 Haundi – Lagun Onak (3. maila)
18:30 Elgoibar – Soraluze (Pref.)

Domeka, 1

12:00 Elgoibar – Mondragon (Erreg. neska.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 1

10:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Jub. mut.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 31

11:00 Aterpe Elg. – Pulpo (Inf. neska.)
12:30 Astigarraga Elg. – Ikus Elg. (Inf. neska.)
13:00 Pneumax Elg. – Tolosa (Kad. mut.)
17:30 Beristain Elg. – Usurbil (Jub. mut.)
19:00 Tecnifuelle Elg. – Aloña Mendi (Sen. neska.)

Domeka, 1

11:30 Bankoa Elg. – Arrate B (Inf. mut.)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barbakua, 30

22:00 Lagunak – Usurbil (2. mailako jub.)

LANA

ESKAERA

• Emakumea orduka edo egun osoan lan egiteko prest. Haurrak edo nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten.

☎ 680 250 527

• Neska arduratsu eta gaztea lan egiteko prest, interna edo externa pertsona nagusik zaintzen edo garbiketa lanetan. ☎ 666 008 974

• Kamareroa behar da Mendaroko taberna-kafetegia batean. ☎ 943 030 150

• Gizonezkoa lan bila, garbiketara edo banaketa lanetan. Gida baimena eta auto propioa.

☎ 605 800 582

• Emakumea, lan egiteko prest 15:00etik aurrera.

☎ 691 532 893

• Emakume euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiak, gaixoak eta ezinduek zaintzeko. Eskarmentua du.

Josefina. ☎ 615 762 742

• Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 626 329 979

• DBHko Gaztelania eta Matematikako klase partikularak ematen dira. Talde txikiak. Esperientziaduna.

☎ 943 744 206

• Emakumea lan bila. Nagusiak eta haurrak zaintzen, eta parkinson gaixotasuna duten pertsonekin esperientzia dauka.

☎ 679 317 981

• Emakumea, pisua konpartitzeko logela bilatzen ari da.

☎ 616 288 897

MOTORRAK ETA GARAJEAK

• Pista beltzean marradun garajea alokatzen dut.

☎ 653 863 482

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA

• Autoa edo furgoneta sartzeko marradun garajea alokatzen da Santa Ana kalean (berria).

☎ 646 966 198

• Komuna duen lokal txiki bat behar da.

☎ 943 740 187

• Pisu bat osatzeko gazte bat behar da, Elgoibarren. Gela bat alokatzen da.

☎ 610 458 552

• Mendaron pisua konpartitzeko emakumea behar da.

☎ 636 523 807

BESTELAKOAK

• Katua oparitzen da, persa arrazakoa, grisa, lau urte ditu. Bakuna guztiekin.

☎ 650 854 917

• Polverini markako trikitia saltzen da. 4 ahotsetakoa. Beltza. 1.400 euro.

☎ 688 676 507

• Gotzon Garateren omenaldian aterki bat ahaztu zitzaigun Musika Eskolan. Norbaitek aurkitu badu, deitu dezala.

☎ 943 741 531

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro



AIRETIK ATERATAKO ERRETRATUAK SALGAI!!

Eskatu zeurea!
Informa zaitetz
943 744 112 telefonoan.



GIDA KOMERTZIALA 2009-2010

Gida komertziala prestatzen ari gara, zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

943 743 704

edo helbide honetara idatzi:
barren.publi@elgoibarkoizarra.com



• Zorionak **Jakes**, zure 2. urtebetetzean. Muxu potolo bat familiakoan eta bereziki, Markelen partez.



• Zorionak, **txapeldun**, zure 5. urtebetetzean. Familiakoan eta bereziki, Irene eta Claudiaren partez.



• Zorionak, **Haritz**, familiakoan eta batez ere, arreba Nagoreren partez, gaur 11 urte egin dituzulako.



• Zorionak, **Oihane**, gaur urte bat egin duzulako. Muxu handi bat etxekoan partetik.



• Koadrilako txikixenak ere bete ditte urtiak! Zorionak eta muxu bat zuretza-ko.



• Zorionak zure zortzigarrenean. Patxo handi bat denon partez.



• Zorionak, **Galder**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Muxu pila bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Sarai**, domekan 9 urte egingo dituzulako. Muxu bat familiakoan, bereziki, Kerminen partez.



• Zorionak, **Nerea**, gaur 4 urte egin dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Mikel eta Ceciren partez.



• Zorionak, **Lore**, gure pixpiriña, 6 urte egin dituzulako. Etxekoan eta lagun partez.



• Zorionak, **Ibai eta Naroa**, urte bat eta bost urte egin dituzuelako. Gurasoen eta familiakoan partez.



• Zorionak, **Ander eta Mikel**, domekan 3 urte egingo dituzuelako. Familiakoan eta Estherren partez.



• Guk zuen ezkontzan bezain ondo izan zaitezte. Zuen lagunak.



• Gure etxeko printze eta printzesak 3 urte! Zorionak eta muxu handi bana, **Beñat eta Intza** etxekoan partez.



• Zorionak etxeko printzesei, zuen urtebetetzean. Mila ki-
lo muxu familiakoan eta Sararen partez. Paaaaaaa!

OHARRA

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro.

Argazki bikoitza: 3 euro.

Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu,

argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu.

BARREko bulegora 12:00ak baino lehen,
edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



HITZALDIA: "Euskaltasunaren norabideaz oldozpen batzuk"

"Ona litzauguke etorkizun-ikuspegiako elementu batzuk izatea gure euskaltasunaren aurrerabidea ikusteko. Oro har, ez dut uste ondoegi egiten ari garenik estrategia mailako etxekolanak. Euskararen garapenaren gaian gauza askotan sumatzen den fundamendu faltaren arrenkuratik abiatuko da gogoeta. Nola goaz? Etorkizun-ikuspegiak eraikitzeke material batzuk aurkeztea da solasaren helburua. Euskaltasunaren aurrerabideari buruzko elementu batzuk aletzea, eta galdera egokiagoak egiten saiatzea".

Jon Sarasua

Azaroak 4, asteazkena 19:00etan Kultur Etxean

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEN



OKINDEGIA

1 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 30 Ibañez
- 31 Garitaonandia
- 1 Garitaonandia
- 2 Etxeberria (Santa Ana)
- 3 Fernandez
- 4 Yudego
- 5 Zabaleta
- 6 Etxeberria (Errosario)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net
atarian



30 barixakua

Erakusketa

19:00 Argazki erakusketa
Ongarri argazki taldeak
antolatuta, Roberto Botijaren
Paisajes al margen argazki
erakusketa jarriko dute ikusgai
Kultur Etxean. Azaroaren 14ra
arte egongo da zabalik.

Kontzertua

21:30 Moby Dick
Iratxo tabernan

31 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria
Udalak eta Debemenek antola-
tuta, hileko azken zapatuko feria
izango da. Nafarroa Plazan eta
Leku Ederren.

Azoka

11:00 Zaporeen azoka
Zaporeen eta artisau lanen azo-
ka izango da asteburuan Leku
Eder parkean. 17:00etatik au-
rrera ere egongo dira postuak
ikusgai.

1 domeka

11:00 Zaporeen azoka

Zaporeen eta artisau lanen azo-
ka izango da asteburuan Leku
Eder parkean. 17:00etatik au-
rrera ere egongo dira postuak
ikusgai.

2 astelehena

Ikastaroak

19:00 Gizarte parte-hartzeari
buruzko ikastaroak
Herritarren parte-hartzea susta-
tzeko ikastaroa. Hilaren 3an eta
4an ere eskainiko dituzte. Kultur
Etxeko hitzaldi gelan.

GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 30
Filma 17:00
ZAPATUA 31
Ping pong txapelketa 17:00
DOMEKA 1
Topagunea 17:00
MARTITZENA 3
Eskulanak 17:00
EGUAZTENA 4
Txoko pribatua 17:00
EGUENA 5
Sukalde txokoa 17:00

LUKOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 30
Talde jolasak 17:00
ASTELEHENA 2
Wii sports 17:30
MARTITZENA 3
Hileko jolasa wasabi 16:30
EGUAZTENA 4
Karta jolasak: "Hartu 6" 17:30
EGUENA 5
Jolas librea 17:30

«Los sustitutos»

30, barixakua: 22:15
31, zapatua: 19:00/22:15
1, domeka: 19:00
2, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2008. Zuzendaria: Jonat-
han Mostow. Aktoreak: Bruce Willis, Ro-
samund Pike, Ving Rhames. Unibertsita-
teko ikasle baten hilketa ikertu behar dute
FBIko bi agentek. Ordezkoen *high-tech*

fenomenoaren sorreran parte hartu zuen
gizonarekin lotura du biktimak. Pertsonak
euren bertsio hobetuak erosi ditzakete,
eta robot horiek bakoitzaren bizitzako fun-
tzioak betetzen dituzte.



4 eguaztena

Tailerra

16:45 'Zeri deritzogu sexualitatea'

Haizeak antolatuta, Eskarne Larrinaga izango da hizlaria. Artetxeko lokalean.

Hitzaldia

19:00 'Euskaltasunaren norabideaz oldozpen batzuk'

Gotzon Garataren omenez antolatutako hitzaldi zikloaren barnean, euskaltasunaren norabideari buruz berba egingo du Jon Sarasuak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

5 eguena

Hitzaldia

19:00 'Egunkaria libre'

Joan Mari Torrealdai auzipetuak emango du, Eibarko Arrate kultur elkartearen.



Gure gomendioa

Azken zapatuko feria eta zaporeen azoka

Asteburuan, Leku Ederren eta Nafarroa Plazan

Hileko azken zapatuko feriarekin batera, zaporeen azoka izango da Elgoibarren asteburuan. Bihar, ohiko egitarauaz gain, Elgoibarko baserrietako produktuekin eginiko menua dastatzeko aukera izango da. Bestalde, Leku Eder parkean zaporeen azoka izango da asteburu osoan. Artisautza lanak ere jarriko dituzte ikusgai, eta hainbat herrialde-tako produktuak egongo dira salgai.



Zerikasi

IKASTAROAK

Reiki ikastaroa (hastapena)

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-10-31 / Bukaera data: 2009-02-20
Non: Eibarren
Izena emateko: 665 743 217 telefonoan (Martin)

Acces ikastaroa

Norentzat: Windows erabiltzen dakitenentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-11-02
Non: Elgoibarren
Izena emateko: Azaroak 2

Eskulanak

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
Hasiera data: 2009-11-02
Non: Soraluzen
Izena emateko: Kontsultatu

Eramateko janaria prestatzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
Hasiera data: 2009-11-17
Non: Eibarren
Izena emateko: Azaroaren 13ra arte

Coaching, jarrerak neurtzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-12-09
Non: Elgoibarren
Izena emateko: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«Cher Ami»

1, domeka: 16:30

«Cosas insignificantes»

5, eguena: 21:30

Mexiko, 2009. Zuz.: Andrea Martinez.
Akt.: Paulina Gaitan, Carmelo Gomez,
Blanca Guerra, Lucia Jimenez. 96 min.
Esmeralda gazteak obsesio arraro bat
du: ezagutzen ez dituen pertsonen

galdu, ahaztu edo botatako objektuak
gordetzen ditu kaxa batean. Kaxako
hiru objekturen eta horien atzean dau-
den pertsonen istorioa kontatzen du
filmak.

Erretratu zaharra



1965

Aste honetako erretratu Jose Mari Zialtzetaz ekarri du BARRERera. 1965. urteko argazkia da, eta Madariagan aterata dago. Egun pasa joan ziren gazte horiek mendira, eta hantxe ateratu zuten argazkia. Gogora ditzagun gazte horiek:

Zutik, ezkerretik eskumara: Mari Kruz (bizkaitarra), Jose Iriondo "Sansón", Mari Tere Leiaristi, Rosa Mari Odria eta Javier Muguruza.

Makurtuta: Jose Mari Egaña *Mintxeta*, Mariasun Iriondo (†), Jose Mari Zialtzeta, Pilar Iriondo eta Pedro Mari Egaña *Mintxeta*.

Gure berbak

Hiztegixa: animalixen izenak (5)

Hona, gaurkuan ere, animalixen berba gehixago:

- ♦ **MOZOLO, mozolua:** 1. "Mochuelo común". **Mozolo haundia** eta **Mozolo txikia**. 2. izond. **Mozolo/-a, mozolua/-ia**. Gizon edo emakume zozoa, ergela, adimen gutxikoa.
- ♦ **MOXAL, moxala:** Behorkumea, zaldikumea.
- ♦ **MUSKAR, muskarra:** "Lagarto".
- ♦ **OILLAGOR, oillagorra:** "Becada". *Oillagorretara juaten nitzuan len, domekero*.
- ♦ **OILLAGOR-TXAKUR, oillagor-bakurra:** "Setter".
- ♦ **OILLANDA, oillandia:** "Polla".
- ♦ **OILLAR, oillarra:** "Gallo".
- ♦ **OILLASKO, oillaskua:** "Pollo".
- ♦ **OILLO, oillua:** Oiloa, "gallina".
- ♦ **OKILL, okilla:** "Pájaro carpintero", "Pito real". **Okill txikia**.
- ♦ **OTATXORI, otatxorixa:** "Tarabilla".
- ♦ **PAGOUSO HAUNDI, pagouso haundia:** "Paloma torcaz".
- ♦ **PAGOUSO TXIKI, pagouso txikia:** "Paloma zurita".

- ♦ **PAITTA, paittaa:** Ahatea, etxekoa. **Ahata** ere bai; lehen desberdin erabiltzen ziren bi berbak.
- ♦ **PARANDA, parandia:** "Pinzón".
- ♦ **PARANDA GORRI, paranda gorrixa:** "Chonta real".
- ♦ **PARDILLO, pardillua:** "Pardillo".
- ♦ **PASEKO, pasekua:** "Ave migradora".
- ♦ **PIÑU-HAR, piñu-harra:** "Procesionaria", pinuetan sortzen den harra.
- ♦ **SARBO, sarbua:** Erreketan oso ugaria zen arrain txikia, ezkaillaren antzekoa.
- ♦ **SATANDERA, satanderia:** Erbinudea, "comadreja".
- ♦ **SITS, sitsa:** "Polilla", gau-tximeleta txikia, oihalak jaten dituen. *Sitsak janda dago soilfeko hori*.
- ♦ **SUBE, subia:** Sugea.
- ♦ **SUBELINDARA, subelindaria:** "Lagartija".
- ♦ **TARIÑ, tariña:** "Tarin", txori txiki mota bat. Debarrei esaten zaie **tariñak**, dirudenez haien hizkeraren entonazio bereziagatik.
- ♦ **TORTOLA, tortolia:** "Tórtola".

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA

MAGDALENA ARMENDIA AJURIAGOIKOA



2009ko urriaren 28an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



WINDOWS 7 IRTEN DA MERKATURA

Windows XP eta Vista ordezkatuko ditu Windows 7 berriak. Aspaldi hasi ginen Windows 7ari buruzko berriak entzuten, eta azkenean gure artean daukagu, eta urriaren 22tik eskuratu daiteke informatika dendetan. Microsoft enpresaren helburua Vistak izan duen porrota konpontzea da, eta XP alde batera lagatzea. Eta badirudi, gauzak ondo doazela. Kritika oso onak jaso ditu, eta Amazon UK web gunean historiako produkturik salduena da, dagoeneko. Adituen esanetan, merkatuan ondo funtzionatu duen produktua da. Microsoft Ibérica enpresako zuzendariak esandakoaren arabera, Microsoften historiako produkturik onena da, eta gainera erabiltzeko azkarragoa, errazagoa eta seguruagoa dela esan dute.

Windows 7ren abantaila batzuk:

- ✓ **Konpatibilitatea:** Windows Vistak eman zituen bateratze arazo guztiak gainditu ditu sistema berriak.
- ✓ **Leiho azkarrak:** Leiho bat baino gehiago irekita izan arren, batean sakatzean besteak txikitu egiten dira.
- ✓ **Azkarra:** Erabiltzaileek arazoak zituzten Vista abiaraztean. Windows 7ak azkartasun bikoitza dauka.
- ✓ **Grafikoen xehetasuna:** Windows 7a DirecX11 aplikazioarekin dator, eta horri esker multimedia produktuak askoz hobeto ikus daitezke.



software garapenak

Antonio Arrilaga, 1
 Tel.: 943 748 105
 Faxa: 943 748 228
 info@softlan.biz
 www.softlan.biz

Softlan

Hurbil
 Zerbitzu Informatikoak S.L.

Hurbil Zerbitzu Informatikoak S.L.
 c/ San Ignacio 4 behe
 20870 Elgoibar
 Gipuzkoa
 Tel. 943 74 80 50 / 676 684 344
 hurbil@hurbil.net
 Harremanetarako pertsona: Edorta

20870 BERGARA
 Fraizkoetxe, 3 behe
 Tel. 943 76 91 27

Onkurgatzen salerosketak eta kanpoteak. Nirenikoa kalitate software. Talpita edo cardak - Web orriak
 Tests y reparación de ordenadores - Software gestión a medida - cd-rom con libro - páginas web

Upaiz Zaharra, 6
 Elgoibar

on@oninformatika.com
 tel.: 943 741 846

On
 informatika

Salmenta - Komputaketa - Zerbitzu Teknikoa - Ahokulturaketa - Web Diseinua - Sareak

Sartu gure web orrian, edota etor zaitez gu ezagutzera!
 www.oninformatika.com

ZAZPI
 INFORMATIKA

Bernando Ezenarro, 15 behe
 Tel. / Faxa: 943 74 37 87
 E-maila: zazpi@telefonica.net

20870 - ELGOIBAR
 (Gipuzkoa)

informática informatika hirulan

Enpresei
zuzenduriko
informatika
zerbitzuak



- Ordenadore eta sareen salmenta eta mantenimendua.
- Ekipoen aukeraketa eta instalazioen aholkularitza.
- Enpresen gestiorako programak eta zerbitzu teknikoa.